

## Instituzioen arteko harremanen euskalduntzea

*Joseba Alvarez*

*Euskal Herria euskalduntzeko prozesuan, gizarte mugimenduek bezalaxe, funtsezko bete beharra dute gure herrian kokaturiko instituzioek, beraiek baitira euskararen erabilpenari balio ofiziala emateaz gain, euskal gizartea euskaraz artikulatzen lagundu gaitzaketen egiturak. Ildo horretan kokaturik, garrantzia izugarria du Udal Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) dauden Udalek eginiko lanak. Baina zein da oraindik erabat euskaraz funtzionatu ezin dezaketen gainerako instituzioen bete beharra? Besteak beste, beraien barnean euskararen erabilpena orokortzen duten bitartean, beraien arteko harremanak gaurdanik euskaraz ere lantzea, euskal hizkuntzaren lurraldetasuna azpimarratuz. Helburu horri begira lagungarri izan dakizuen aurkeztu dizuegu lantxo hau.*

---

*In the process of making the Basque Country “Basque”, in the same way as the social movements, the institutions located in our country play a decisive role as they are the structures that not only give an official value to the use of the Basque language, but also can help to articulate the Basque society in Basque. Being geared to that direction, the job done by the town halls included in the Association of Basque town halls (UEMA) is of great importance. But what is the duty of the rest of the institutions that cannot still work completely in Basque? Among other things, to work on also establishing relations among each other in Basque from now on, at the same time as they generalize the use of Basque among each other, placing emphasis on the territoriality of the Basque language, Having that as the objective and hoping it will be helpful, we present this essay to you.*

Administrazioaren euskalduntzea ezin liteke bertako langileen euskalduntze alfabetatze prozesua zuzentzen duen Hizkuntz Eskakizunen plangintzaren garapen hutsetik etorri, gauza bat langileak euskaraz lan egiteko gaitzea baita, eta beste, oso ezberdina, hauek gaitu ondoren euskaraz lanean jartzea. EHEren inizatibaz sortu zen Udal Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) osatzen duten Udalek argi eta garbi erakutsi dute zein den Administrazioa euskalduntzeko bidea: Udalaren euskarazko funtzionamenduak finkatzen du bertako langileen euskalduntze alfabetatze prozesuaren erritmoa eta ez alderantziz. Udal hauek euskaraz funtzionatzea erabaki dutelako gaitu behar izan dituzte bertako langileak. Motorra, beraz, Administrazioaren euskarazko funtzionamendua da eta ez bertako langileen euskararen ezagutza.

Bide horretan, eta Administrazioa bere osotasunean gaur gaurkoz euskaraz funtzionatzen jartzea ezinezkoa dela jakinik, erabilpenaren ildotik abiatuz hainbat urrats eman daitezkeelakoan gaude, batez ere funtzio instituzionalgarrien alorrean. Lan honetan funtzio instituzionalen artean instituzionalgarriena aukeratu dugu, instituzioen arteko harreman administratiboen alorra, alegia, Euskal Herri osoa euskaldundu aurretik bertan kokaturik dauden instituzioen arteko harremanak euskaldundu daitezkeelakoan baikaude.

Helburu horri begira lan hau egiten hasi ginenean berehala ohartu ginen administrazio gune bakoitzaren tipologia kontutan izanik finkatu behar ziren helburuak eta bitartekoak ezberdinak zirela, edo beste era batetan esanda, ez dagoela administrazio mota guztientzako proposamen bakarra egiteko aukerarik. Gauzak horrela, Donostia bezalako hiri bateko administrazioak garatzen dituen harreman instituzionaletan oinarritu dugu lan hau, eta EKBk argitaratutako Euskaldunen Eskubideen Gida Liburuan azaltzen den Legeria kontutan izanik.

Lan honetan azaltzen den metodologian oinarriturik, beste tipologiatako herri edo administraziotara egokitu beharko litzateke proposamen hau, instituzioen arteko harremanek ezaugarri amankomunak baitituzte non nahi. Harreman ofizial hauek, adibidez, IDATZIZ garatzen dira administrazio guztietan. Bestalde, harreman horiek bi norabidekoak izaten dira, eta, beraz, Administrazioak BIDALTZE eta JASOTZE politikak finkatu behar ditu berak Euskararen Udal Ordenantzetan erabakitako helburu linguistikoaren arauera harremanak finkatzeko. Hona gure proposamena.

### **Instituzioen bete behar legalak**

Euskal Herrian bost mailatako instituzioak ditugu, eta beraz Harreman Politika eta helburu linguistikoak bost instituzio maila bakoitzaren arauera finkatu behar ditugu, eta BIDALTZE eta JASOTZE politikari, BUELATZE politika bat gehiagotu behar diogu, finkatutako helburuak errespetatuak ez izatekotan nola..... behar dugun jakiteko.

Hauek lirateke bost administrazio mailak:

- 1.-Estatuko administrazioa, frantziarra eta espainiarra, Euskal Herrian dagoena ala kanpoan.
- 2.-Komunitate Autonomoko eta Komunitate Foraleko goi administrazioa eta Ipar Euskal Herria biltzen duten Departamendua eta Erregioa (Akitania).

**BIDALTZE HELBURUAK (gutxieneoak)**

ADMINISTRAZIO MAILA	HIZKUNTZ HELBURUA	
1.- Estatuko Administrazioa	(Hego) Euskal Herrian Euskaraz	Estatuetan elebietan: eusk/fran.-eusk/espa
2.- Komunitate Autonomoa - Komunitate Forala - Departamendua - Erregioa (Akitania)	Euskaraz Euskaraz Bietan: eusk/fran. Bietan: eusk/fran.	
3.- Arabako Aldundia - Gipuzkoako Aldundia - Bizkaiko Aldundia - Nafarroako Diputazioa=Kom. For. - Iparraldeko Kantoiak (eskualdeak)	Euskaraz Euskaraz Euskaraz Euskaraz Bietan: eusk/fran.	
4.- Hego eta Iparraldeko udalak I,II eta IV tipologiak -Donostia, Gasteiz, Bilbo, Iruñea -Donibane Garazi, Baiona, Maule -Iparraldeko zein Hegoaldeko eta V tipologiak	Euskaraz: eusk/fran. Euskaraz Bietan: eusk/fran. Bietan: eusk/fran-eusk/espa.	
5.- Nazioartekoa	Euskal Herrian Euskaraz	Kanpora: bietan eusk/inge.

Guk jasotzen dugun materiala edo besteak gurekin jartzen duenean bete behar dituzten hizkuntz helburuak hauek lirateke:

**JASOTZE HELBURUAK (gutxieneoak)**

ADMINISTRAZIO MAILA	HIZKUNTZ HELBURUA	
1.- Estatuko Administrazioa	(Hego) Euskal Herrian Euskaraz	Estatuetan elebietan: eusk/fran.-eusk/espa
2.- Komunitate Autonomoa - Komunitate Forala - Departamendua - Erregioa (Akitania)	Euskaraz Euskaraz Bietan: eusk/fran. Bietan: eusk/fran.	
3.- Arabako Aldundia - Gipuzkoako Aldundia - Bizkaiko Aldundia - Nafarroako Diputazioa=Kom. For. - Iparraldeko Kantoiak (eskualdeak)	Euskaraz Euskaraz Euskaraz Euskaraz Bietan: eusk/fran.	
4.- Hego eta Iparraldeko udalak I,II eta IV tipologiak -Donostia, Gasteiz, Bilbo, Iruñea -Donibane Garazi, Baiona, Maule -Iparraldeko zein Hegoaldeko eta V tipologiak	Euskaraz: eusk/fran. Euskaraz Bietan: eusk/fran. Bietan: eusk/fran-eusk/espa.	
5.- Nazioartekoa	Euskal Herrian Euskaraz	Kanpora: bietan eusk/inge.

\* I, II, III, IV eta V tipologiakoak neurrien zerrenda ikus gehigarrian.

3.-Herrialde mailako Administrazio Foralak eta Iparraldeko Kantoiak.

4.-Bost tipologia ezberdinetan banaturik dugun udal mailako administrazioa

5.-Nazioarte mailako administrazioa, Euskal Herrian dagoena eta kanpoan.

Nola ez, administrazio maila bakoitzerako markatu ditugun helburu linguistikoaren arauera zehaztatutako BIDALTZE, JASOTZE eta BUELTATZE politika, administrazio maila bakoitzaren menpe dauden erakunde parapubliko guztiei betetzea dagokie, hau da, erakunde paramunizipalei, mankomunitateei, elkarte anonimoei (kutxei...), enpresa publikoei etabar.

Bigarren lan nagusia, instituzio maila hauekiko hizkuntz helburuak finkatzean datza, eta horretarako ezinbestekoa da gutxienez EKBk plazaratu duen Euskaldunaren Hizkuntz Eskubideak gidaliburua ondo aztertzea, administrazio maila bakoitzak Euskal Herriko hiru zati administratibo nagusietan bete behar dituen edo errespetatu behar dituen eskubide linguistikoak finkatzen baitira.

Hori aztertu ondoren hauek dira Administrazioek onar ditzaten prestatu ditugun BIDALTZE eta JASOTZE politikarako hizkuntz helburuak. Horiek ez errespetatzekotan finkatuko dugu BUELTATZE politika.

Izan ere, Administrazioak egin behar duen lehen lana, Euskararen erabilera arautzen duen ordenantzaren onarpena ondoren, harreman instituzionalei dagozkien erizpide linguistikoak finkatzea da, gero erizpide horien arauera politika garatzeko

Guk harremanak finkatzerakoan bidaliko dugun materialaren hizkuntz helburuak hauek lirateke:

Administrazio bidaltzaileak beraz, bere inizatibaz sorturiko harreman instituzionalak BIDALTZE helburuan zehazturiko helburu linguistikoak betetz garatuko ditu, eta harreman politikaren helburu linguistiko horiek oztopo izan ez daitezen hartutako erabakiaren berri luzatuko die Administrazio jasotzaileak instituzio bidaltzaileei.

Azkenik, instituzio bidaltzaileak garatutako harremanetan Administrazio jasotzaileak finkatutako hizkuntz helburuak, informatua izan ondoren, hiru aldetan errespetatzen ez badituzte, BUELTATZE politikari ekingo dio Administrazio hartzaileak.

### **Lan metodologia**

1.-Euskararen erabilpena arautzen duen ordenantza jasotzen diren Harreman instituzionaletarako helburu linguistikoak bildu eta falta direnak osatu. (EUSKARA ZERBITZUAK)

2.-Euskara zerbitzuak lan honetan finkatu den erara Harreman instituzionaletarako Hizkuntz Politika finkatu eta proposatu. (EUSKARA ZERBITZUAK)

3.-Ordenantza onartuta badago, Administrazio ebatz organoak ez du Plan hau onartu behar, Ordenantzaren garapena baino ez baita, baina alderdiek Euskara Zerbitzuen oneritzia eman behar diote. (EUSKARA ZERBITZUAK/EBATZ ORGANOA)

4.-Plana gauzatzeko Euskara Batzordearen (eta organoaren) oneritzia jaso ondoren,

administrazio atal bakoitzean bilera bat burutuko da bertako langileekin egin nahi den lanaren berri izan dezaten eta zalantzak argitu ditzaten (EUSKARA ARDURADUNA-ADMINISTRAZIO ATALBURUA edo IDAZKARIA)

5.-Administrazio atal arduradun bakoitzak bere atal administratiboan azken 6 hilabeteetan berak beste instituzio publikoei eta beste instituzio publikoek berari bidalitako materialaren bilduma egiteaz arduratuko da. (ADMINISTRAZIO-ATALBURUA)

6.-Euskara Zebitzuak Administrazio-atal bakoitzak bidali duen azken 6 hilabeteko harreman instituzionalaren material bilduma aztertuko du:

- instituzioak fitxaren arabera sailkatuz
- bakoitzari dagokion helburu linguistikoa zehaztuz
- instituzioen artean erabiltzen den materiala sailkatuz (EUSKARA ZERBITZUA)

7.-Era berean BIDALTZE eta JASOTZE helburuetan oinarriturik instituzioen katalogo bat banatuko die Euskara Zerbitzuak. Administrazio-atal bakoitzari, orain arte erabili dituzten instituzioez gain, falta direnak jasoz eta helburu linguistikoak zehaztuz. (EUSKARA ZERBITZUA)

8.-Dokumentazioa zabaltzeaz edo bidaltzeaz Administrazio-atal bakoitzean arduratzen den langileekin bilera berezia egingo da, katalogoaren arabera nola lan egin behar duten azalduz, eta batez ere kontrol eta segimendu Fitxak eta BUELTATZE politika nola bideratu behar duten ikasteko. (EUSKARA TEKNIKARIA-ADMINISTRAZIO ATAL BURUA)

9.-Bi hilabeteen behin Euskara Zerbitzuak administrazio-atalekin egin duten lanaren kontrola burutuko du, arazoak konponduz eta sei hilabeteen behin balantzea aurkeztuko dio Euskaraz Batzordeari. (EUSKARA ZERBITZUA)

10.-Administrazioak bere harreman instituzionaletan helburu linguistikoak errespetatuak izan daitezzen, informazio txosten bat egingo du, berarekin harremanetan dauden guztiei bidaltzeko, eta berak bidaltzen duen dokumentazioan beti txertatzeko.

11.-Administrazioak hiru alditan gutxienez, harremanak helburu linguistikoak kontutan izan gabe bideratzen dituzten instituzio publikoei harremana zuzentzeko eskatuko die. Ez onartzekotan, BUELTATZE politikari ekingo dio hizkuntz helburuak errespetatzen ez dituzten dokumentoak itzuliz.

JASOTZE SEGIZIO FITXA

1.- Administrazio maila/atala: \_\_\_\_\_

2.- Jasotze arduraduna: \_\_\_\_\_ 8.- Kodea: \_\_\_\_\_

3.- Dokumentuaren iturria	4.- Hizkuntza	5.- Saila	6.- Jasotze eguna	7.- Erantzun eguna

BIDALTZE SEGIZIO FITXA

1.- Administrazio maila/atala: \_\_\_\_\_

2.- Bidaltze arduraduna: \_\_\_\_\_ 8.- Kodea: \_\_\_\_\_

3.Dokumentuaren iturria	4.- Hizkuntza	5.- Saila	6.- Jasotze eguna	7.- Erantzun eguna

**ITZULTZE SEGIZIO FITXA**

1.- Administrazio maila/atala: \_\_\_\_\_

2.- Itzultze arduraduna: \_\_\_\_\_ 8.- Kodea: \_\_\_\_\_

3. Dokumentuaren iturria	4.- Hizkuntza	5.- Saila	6.- Jasotze eguna	7.- Erantzun eguna

**HARREMAN SEGIZIORAKO FITXA**

1.- Administrazio maila/atala: \_\_\_\_\_

2.- Euskara Zerbitzuko arduraduna: \_\_\_\_\_ 8.- Kodea: \_\_\_\_\_

3.- Dokumentuaren iturria	4.- Hizkuntza	5.- Saila	6.- Jasotze eguna	7.- Erantzun eguna

**INSTITUZIOEN ARTEKO HARREMANEN EUSKALDUNTZEA**

FUNTZIOA: Administrazioa AZPIFUNTZIOA: Harreman instituzionalak HELBURU OPERATIBOAK: Ordenantzan ipinitako helburuak bete daitezen plana garatzea		Fitxa zenbakia: 0 HERRIA: Donostia URTEA: 1993
EGOERA	HELBURU ZEHATZAK	IHARDUERA ATALAK
- Ordenantza onartuta  - Harreman instituzionalak finkatzeko planik ez.	- Institutio maila bakoitzeko hizkuntz helburuak finkatzea eta Plangintza egikaritzea.  - Euskal Herriko administrazioekin harremanak euskaraz ala elebietan orokortzea.	- Harremanetarako hizkuntz politika.  - Institutioen katalogoa  - Jasotzen den materiala.  - Bidaltzen den materiala.

AZPIFUNTZIOA: Harreman instituzionalak IHARDUERA ATALA: Harremanetarako hizkuntz politika. HELBURU OPERATIBOAK: Euskara Batzordeak edo Plenoak politika hau onartzea.		Fitxa zenbakia: 1 HERRIA: Donostia URTEA: 1993			
BITARTEKOAK	EKINTZA EGITARAUA				EMAITZEN NEURKETA
	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA
- Euskara teknikaria	<u>I Fasea</u> Hizkuntz Politikarako proposamena egin	Bi aste	Urtarrila hasiera	Euskara teknikaria	_____
1.- Euskara Batzordea	<u>II Fasea</u> Euskara Batzordean aurkeztu	Aste bat	Urtarrila erdia	Euskara teknikaria	_____
2.- Osoko Bilkura	<u>III Fasea</u> Beharrezkoa bada Plenora eraman	_____	_____	Euskara Batzordea	_____
3.- Publikazio Batzordea	<u>IV Fasea</u> Erabakia prentsan argitaratu	Aste bat	93ko Abenduak. Urte amaieran	Prentsa Bulegoa	500.000,-
Segimendurako fitxen bidez (hau) egingo du segimena Euskara Teknikariak					



AZPIFUNTZIOA: Harreman instituzionalak IHARDUERA ATALA: Institutzioen katalogoa HELBURU OPERATIBOAK: Harremanak burutzeko administrazio maila guztietako administrazio katalogoa burutu.						Fitxa zenbakia: 2 HERRIA: Donostia URTEA: 1993	
BITARTEKOAK	EKINTZA EGITARAU					EMAITZEN NEURKETA	
	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA		
- Euskara teknikaria	<u>I Fasea</u> Jadanik dauden harremanak sailkatu instituzioka	Bi aste	Aste santuan hasita	Euskara teknikaria	_____	Segimendurako fitxen bidez (hau) egingo du segimena Euskara Teknikariak	
1.- Alkatearen gutuna	<u>II Fasea</u> Informazioa eta alkatearen gutuna beste administrazioei	Bi hilabete	Maiatza	Euskara Zerbitzua	_____		
2.- Administrazio arduraduna	<u>III Fasea</u> Administrazio guztien katalogoa prestatu helburuak ezarri	Bi aste	Uztaila amaiera	Euskara Zerbitzua	_____		
3.- Euskara Zerbitzua	<u>IV Fasea</u> Inprimitu eta banatu	Hilabete	Iraila	Euskara Zerbitzua	500.000,-		

AZPIFUNTZIOA: Harreman instituzionalak IHARDUERA ATALA: Udalak jasotzen duen materiala HELBURU OPERATIBOAK: Udalarekin harremanak dituzten instituzioei hartu den erabakiaren berri eman						Fitxa zenbakia: 3 HERRIA: Donostia URTEA: 1993	
BITARTEKOAK	EKINTZA EGITARAU					EMAITZEN NEURKETA	
	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA		
- Euskara teknikaria	<u>I Fasea</u> Jasotako materiala bildu dadin gutuna banatu	Astebete	Urtarrila amaiera	Euskara teknikaria eta JOTA arduradunak	_____	Segimendurako fitxen bidez egingo du Euskara Teknikariak	
1.- Alkatearen gutuna	<u>II Fasea</u> Jasotako materiala sailkatu	Hilabete	Otsaila	Euskara Zerbitzua	_____		
2.- JOTA arduradunak	<u>III Fasea</u> Beste administrazio, alkatearen gutuna erabakia azalduz gehi txostena inprenta	Hilabete	Martxoa	Euskara Zerbitzua	_____		
3.- Euskara Zerbitzua	<u>IV Fasea</u> Langileekin bilera eta plana bideratu	Astebete	Apirila amaiera	Euskara teknikaria	2.000.000,-		
4.- Inprenta							
5.- Langile Bilera							

**INSTITUZIOEN ARTEKO HARREMANEN EUSKALDUNTZEA**

AZPIFUNTZIOA: Harreman instituzionalak IHARDUERA ATALA: Udalak bidaltzen duen materiala HELBURU OPERATIBOAK: Administrazio mailetako hizkuntz helburuetara egokitzea udalak harremanetan erabiliko duen materiala.					Fitxa zenbakia: 4 HERRIA: Donostia URTEA: 1993	
BITARTEKOAK	EKINTZA EGITARAUA					EMAITZEN NEURKETA
	FASEAK	IRAUPENA	EGUTEGIA	ARDURA	AURREKONTUA	
- Euskara teknikaria	<u>I Fasea</u> Hizkuntz helburuak ordenantzatik aterata daudela erakutsi langileei	Astebete	Urria hasiera	Euskara teknikaria	_____	Segimendu fitxen bidez (hau) egingo du Euskara Teknikariak
1.- Alkatearen gutuna	<u>II Fasea</u> Alkatearen gutunaren bitartez informazioa banatu. Bilerak garatu	Bi aste	Urria bukaera	Euskara Zerbitzua eta JOTA arduradunak	_____	
2.- JOTA arduradunak	<u>III Fasea</u> Materiala Euskara Zerbitzuak jaso eta egokitu	Hilabete	Azaroa	Euskara Zerbitzua	_____	
3.- Euskara Zerbitzua	<u>IV Fasea</u> Inprenta eta plana bideratu	Hilabete	Abendua	Euskara Zerbitzua	2.000.000,-	
4.- Inprenta						
5.- Langile Bilera						

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA
-Hizkuntz politika proposatu -Euskara Batzordean aurkeztu -Beharrezkoa bada Osoko Bileran onartu -Jasotako materiala biltzeko gutunak	-Jasotako materiala sailkatu	-Udalaren erabakia eta alkatearengutuna jasotzen duen txostena prestatu	-Langileekin bildu JOTA bakoitzean plana bideratzeko
MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA
-Beste administrazioei prestatutako txostena banatu	-Beste administrazioei prestatutako txostena banatu	-Administrazio guztien katalogoa prestatu	
IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
-Katalogoa inprentan sartu eta JOTAtan banatu	-Harreman helburuak ordenantzan txertatuak daudela azaldu langileei -Alkatearen gutuna langileei zuzendua Plana gogoratu	-Urtean zehar prestatu den material guztia bildu egokitu eta banatu langileen artean	-Inprentan dena sartu plana martxan jartzeko -Langile arduradunarekin bilera berezia -HIZKUNTZ POLITIKA PUBLIKATU MARTXAN JARTZEKO

## HEGOALDEKO HERRIAK TIPOLOGIAKA SAILKATURIK

Bi ohar egin nahiko genituzke zerrendara pasa aurretik.

Lehen, 1991n egindako errolda berriko datuak lantxo hau idazterakoan ezagutzen ez ditugunez, bertan azaltzen diren euskaldun eta ia euskaldunen kopuruak 1986ko erroldan jasotakoak direla azpimarratu nahi dugu. Bestalde, ez dugu Iparraldeko herrietako euskararen ezagutza datorik lortu, eta zenbait herritakoak dauden arren, ez dugu uste osotasunean inon aurki daitezkeenik. Gauzak horrela, zerrenda honetan ez dira Iparraldeko herriak azaltzen, Hegoaldeko bostehundik gorakoak baizik, baina errolda 1986koa denez, azken sei urte hauetan sortu diren herri berriak ere falta dira.

Bigarrena. Herrien tipologia erabakitzeko unean, erroldan azaltzen diren euskaldunen kopuruan oinarritu gara, eta zerrenda honetan ia euskaldunen kopurua azaltzen badugu, plangintza egiterakoan erritmoak finkatzeko eta azkartzeko lagungarri izan daitekeelako izan da eta ez tipologia batean edo bestean egoteko eragina duelako.

I. Tipologian euskaldungoaren kopurua herriko biztanlego osoaren %90tik gora duten herriak bildu ditugu (helburua: lurraldetasun edo euskarazko elebakartasun trinkoa) eta II. Tipologian euskaldungoaren kopurua %80-90 artean duten herriak (helburua: lurraldetasun edo euskarazko elebakartasun leundua). Herri hauek dira UEMAko partaide izan daitezkeenak mankomunitate honen estatutuen arauera. III Tipologian hiriburuak bildu ditugu, euskaldunen portzentaia alde batera utzita, izaera berezia dutelako euskalduntze prozesuari begira (helburua: elebitasun normalizatzailea). IV Tipologian bi azpitalde ditugu; IV (a) Tipologian, % 51-80 duten herriak bildu ditugu (helburua: lurraldetasun eta euskarazko elebakartasun leundunerantz), eta, IV (b) Tipologian, % 20-51 euskaldun duten herriak (helburua: elebitasun orekatua). Azkenik, V Tipologian %0-20 euskaldun duten herriak bildu ditugu (helburua: euskarari sarbidea ematea).

Abadiño	IV	Albiztur	I	Araitz	I
Abaigar	V	Alegia	II	Arakaldo	IV
Abaltzisketa	I	Alesbes	V	Arakil	V
Abanto-Zierbana	V	Alkiza	I	Arama	I
Abarzuza	V	Altsasu	V	Aramaio	I
Abaurrea Behea	V	Altzo	I	Aranaratxe	V
Abaurrea Gaina	IV	Allin	V	Aranatz	I
Aberin	V	Allo	V	Aranguren	V
Ablitas	V	Ameskoa Behea	V	Arano	I
Adios	V	Amezketeta	I	Arantzazu	II
Aduna	I	Amoroto	I	Aras	V
Aezkoa-Iriberrí	IV	Amurrio	V	Arbizu	I
Agoitz	V	Andoain	IV	Areatza	IV
Aguilar de Codes	V	Andosilla	V	Arellano	V
Agurain	V	Anoeta	IV	Areso	I
Aia	I	Antsoain	V	Aretxabaleta	IV
Aiara	V	Antzin	V	Arguedas	V
Aibar	V	Antzuola	IV	Aria	IV
Aiegi	V	Anue	IV	Aribe	V
Aizarnazabal	I	Añorbe	V	Armañanzas	V

**INSTITUZIOEN ARTEKO HARREMANEN EUSKALDUNTZEA**


---

Armiñon	V	Berrobi	II	Eskoriatza	IV
Arrankudiaga	IV	Bertiz Arana	II	Eslaba	V
Arrasate	IV	Betelu	II	Espartza	V
Arratzu Ubarrundia	V	Biana	V	Esprontzeda	V
Arrieta	I	Biasteri	V	Esteribar	V
Arrigorriaga	V	Bidangoze	V	Etayo	V
Arroniz	V	Bidaurreta	V	Etxalar	I
Arruazu	IV	Bidegoian	I	Etxarri Aranaz	II
Artaxona	V	Bilar	V	Etxarri	V
Artazu	V	Bilatorta	V	Etxauri	V
Arteaga	I	Bilbo	III	Etxebarri	I
Arteaga	II	Billabona	IV	Etxebarri-Donetztebe	V
Artze	V	Biurrun Oloz	V	Eulate	V
Artzentales	V	Buñuel	V	Ezkabarte	V
Artzienaga	V	Burgelu	V	Ezkio-Itxaso	I
Asparren	V	Burgi	V	Ezkurra	I
Asteasu	II	Burlata	V	Ezprogi	V
Atarrabia	V	Busto El	V	Faltzes	V
Ataun	I	Busturia	IV	Fitero	V
Atez	IV	Deba	II	Fontellas	V
Atxondo	IV	Deierrri	V	Fruiz	I
Aulesti	I	Deikaztelu	V	Funes	V
Auritz	IV	Derio	IV	Fustiñana	V
Azagra	V	Desoio	V	Gabiria	I
Azkoitia	II	Dima	I	Gaintza	I
Azpeitia	II	Donamaria	I	Galar	V
Azuelo	V	Donemiliaga	V	Galdakao	IV
Bakaikoa	IV	Donetztebe	IV	Galdames	V
Bakio	IV	Donostia	III	Galipentzu	V
Balmaseda	V	Dorreaga	V	Gallues	V
Baltorra	V	Dulantzi	V	Gamiz-Fika	I
Barakaldo	V	Durango	IV	Garai	I
Barañain	V	Ea	I	Garaioa	V
Barasoain	V	Egues	V	Garde	V
Barbarin	V	Eibar	IV	Gares	V
Bargota	V	Ekora	V	Garinoain	V
Barillas	V	Elantxobe	I	Garralda	IV
Barrika	IV	Elduaian	I	Gasteiz	III
Barrundia	V	Elgeta	II	Gatika	II
Basaburua Mayor	II	Elgoibar	IV	Gaubea	V
Basauri	V	Elgorriaga	II	Gazteluberri	V
Bastida	V	Elo	V	Genevilla	V
Baztan	IV	Elorrio	IV	Gernika-Lumo	IV
Beasain	IV	Elortz	V	Gesalaz	V
Bedia	IV	Eltziego	V	Gesaltza	V
Beire	V	Eneriz	V	Getaria	I
Beizama	I	Erandio	V	Getxo	V
Belaskoain	V	Erasun	I	Girgillano	V
Belauntza	I	Ereño	I	Gizaburuaga	I
Bera	IV	Ergoiena	I	Goizueta	I
Berango	IV	Ermua	V	Gofi	V
Beranturi	V	Errezil	I	Gordexola	V
Berastegi	I	Erribera Beitia	V	Gorliz	IV
Berbinzana	V	Erribera Goitia	V	Gueñes	V
Bergara	IV	Errigoiti	I	Guesa	V
Bermeo	IV	Erro	V	Harana	V
Bernedo	V	Erronkari	V	Hernani	IV
Berriatu	I	Esa	V	Hernialde	II
Berriz	IV	Eskarotz	V	Hondarribia	IV

Huarte Arakil	IV	Laukiz	IV	Mues	V
Huarte	V	Lazagurria	V	Mundaka	IV
Ibañeta	II	Lazkao	IV	Mungia	IV
Ibargoiti	V	Leaburu-Gaztelu	I	Munitibar	I
Ibarra	IV	Leache	V	Mureluhautsi	V
Ibarrangelu	I	Legarda	V	Murelukonde	V
Idiazabal	I	Legaria	V	Murieta	V
Igantzi	I	Legazpi	IV	Murtxante	V
Igorre	IV	Legorreta	IV	Muruzabal	V
Iguzkiza	V	Legutio	IV	Muskiz	V
Imotz	IV	Leintz-Gatzaga	II	Mutiloa	I
Ipazter	I	Leioa	V	Mutriku	II
Iruerrieta	I	Leitza	II	Muxika	I
Irun	IV	Lekeitio	II	Nabaridas	V
Iruña	V	Lemoa	IV	Navascues	V
Iruñea	III	Lemoiz	IV	Nazar	V
Irura	II	Leotz	V	Obanos	V
Iruraitz Gauna	V	Lerga	V	Odieta	IV
Isaba	V	Lerin	V	Oartzun	IV
Itsasondo	II	Lesaka	IV	Oion	V
Ituren	I	Leza	V	Oiz	I
Iturmendi	IV	Lezama	IV	Oko	V
Iza	V	Lezaun	V	Okondo	V
Izagaondoa	V	Lezo	IV	Olaberria	IV
Izaltzu	V	Liedena	V	Olaibar	V
Izurtza	II	Lizarra	V	Olazti	V
Jaitz	V	Lizartza	I	Olejua	V
Jatabe	II	Lizoain	V	Olite	V
Jaurrieta	V	Lodosa	V	Oloriz	V
Kabredo	V	Loiu	IV	Oltza	V
Kadereita	V	Longida	V	Olo	V
Kanpetzu	V	Lukiain	V	Ondarroa	II
Kapanaga	V	Luzaide	IV	Oñati	IV
Kaparroso	V	Maeztu	V	Orbaizeta	IV
Karakarre	V	Mainueta	V	Orbara	IV
Karrantza	V	Mallabia	IV	Ordizia	IV
Kaseda	V	Mañaria	II	Orereta	IV
Kaskante	V	Mañeru	V	Orexa	I
Kastejon	V	Marañon	V	Orio	II
Koartango	V	Markina-Xemein	II	Orisoain	V
Korella	V	Martzilla	V	Ormaiztegi	II
Kortes	V	Meanuri	V	Ornoz	V
Kripan	V	Melida	V	Oroz Betelu	V
La Puebla de Labarka	V	Mendabia	V	Orozko	IV
Labaien	I	Mendaro	IV	Orreaga	IV
Lagran	V	Mendata	I	Oteiza	V
Lakuntza	IV	Mendaza	V	Otxagabia	V
Lana	V	Mendexa	I	Otxandio	II
Lanestosa	V	Mendigorria	V	Pasaia	IV
Lantaron	V	Menkikute	V	Peralta	V
Lantz	IV	Meñaka	I	Petilla de Aragon	V
Lantziego	V	Metauten	V	Pitillas	V
Larrabetzu	II	Milagro	V	Plentzia	IV
Larraga	V	Miliarri	V	Portugalete	V
Larraona	V	Mirafuentes	V	Pueyo	V
Larraul	I	Miranda de Arga	V	Ribaforada	V
Larraun	IV	Morentin	V	Sada de Sangüesa	V
Lasarte-Oria	IV	Moreta	V	Saldias	I
Laudio	V	Morga	I	Samaniego	V

INSTITUZIOEN ARTEKO HARREMANEN EUSKALDUNTZEA

---

San Adrian	V	Unziti	V	Zalduondo	V
San Martin de Unx	V	Unzue	V	Zalla	V
Sansol	V	Urantzia	V	Zamudio	IV
Santakara	V	Urdax	IV	Zanbrana	V
Santurtzi	V	Urdiain	II	Zangotza	V
Sartaguda	V	Urduliz	IV	Zaratamo	IV
Sarze	V	Urduña	V	Zarautz	IV
Segura	II	Uriona	V	Zarrakaztelu	V
Sesma	V	Urizarra	V	Zeanuri	I
Sestao	V	Urkabustaiz	V	Zeberio	I
Sondika	IV	Urnietia	IV	Zegama	I
Sopela	IV	Urraul Behekoa	V	Zerain	I
Sopuerta	V	Urraul Goikoa	V	Zestoa	II
Soraluze	IV	Urraul-Ekialdekoa	V	Zigoitia	V
Sorlada	V	Urretxu	IV	Zintroniko	V
Sukarrieta	II	Urrotz Doneztebekoa	I	Ziordia	V
Sunbila	I	Urrotz	V	Zirauki	V
Tafalla	V	Urtuella	V	Ziriza	V
Tiebas Muruarte de Reta	V	Urtzainki	V	Zizur	V
Tirapu	V	Usurbil	IV	Zizurkil	IV
Tolosa	IV	Uterga	V	Zornotza	IV
Toralba	V	Uxue	V	Zubieta	I
Trapagaran	V	Uztarroz	V	Zugarramurdi	I
Turtzioz	V	Villamayor de Monjardin	V	Zuia	V
Tutera	V	Xabier	V	Zumaia	IV
Ubide	IV	Xulapain	V	Zumarraga	IV
Ugao-Miraballes	IV	Zabaitza	V	Zuñiga	V
Ukar	V	Zaldibar	IV		
Ultzama	IV	Zaldibia	II		

**Joseba Albarez**

*Donostiako Euskararen  
Udal Patronatuko partaidea*

*Member of the Basque Comission  
of the town association of Donostia*